

# iruner

194. zenbakia. 2011ko maiatza



## Etxebizitza merkatuaren krisia



Udalak onartu ditu  
2010-2012  
epealdirako Euskara  
Biziberritzeko Plana  
eta Erabilera Plana



Bidasoa Irunek  
Ohorezko  
mailan  
jarraituko du

PREST



MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

# ATE IREKIAK

## Goï Eskola Politeknikoa

**ARRASATE MAIATZAK 19**

*unibertsitate masterrak* osteguna, 17:30

**ARRASATE EKAINAK 11**

larunbata, 10:30 *Biteri Ikastetxe Nagusia*

## Enpresagintza Fakultatea

**OÑATI MAIATZAK 21**

larunbata, 11:00

**IRUN MAIATZAK 28**

larunbata, 11:00

## Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

**ESKORITAZA MAIATZAK 14** larunbata, 11:00

ARETO NAGUSIAN  
*Etorri aurretik  
izena eman!*



902 110 436

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

**Helbidea:** Salis hiribidea, 21 - behea. 20304 IRUN. Tel: 943 63 18 78. Faxe: 943 63 18 77  
[irunero@infotxingudi.com](mailto:irunero@infotxingudi.com)  
**Argitaratzailea:** TB S.L.  
**Erredakzioa**  
**maketazioa:** Ana Grijalba.  
**Kolaboratzailea:**

Mikel Asurmendi  
**Zuzentzailea:**  
Xabier Kerexeta.  
**Inprimategia:** Antza  
**Tirada:** 3.500 ale  
**Lege gordailua:** SS-230-94  
ISSN: 1134-0606

#### 4.- *Lapikoan*

- Euskara Biziberritzeko eta Euskara Udal Administrazioan Erabiltzeko Planak.
- Irungo Garagunea: adimen urrikoak integratzea, xede
- Juana Bengoechea PPko zerrendaburua.
- Oinatz Mitxelena Bilduko zerrendaburua.

#### 14.- *Kirolak.*

- Bidasoa Irunek Ohorezko Mailan jarraituko du.

#### 15.- *Gai nagusia.*

- Etxebitzita-merkatuaren krisia Irunen.

#### 20.- *Bi hitzetan:* Berri laburrak.

#### 22.- *Kuttun gabinete psikopedagogikoa* Poza-Alaitasuna emozioa.

#### 24.- *Eleak iruten.* Zeluloidezko begiradak.

#### 25.- *Lerroz lerro.* Jon Benito *Bulkada*

#### 26.- *Kultur Agenda*

#### 28.- *Gazte Informazio Bulegoko berriak*

## OLAIZOLA

## Inmobiliaria agentzia

Beraketa kalea, 17  
20302 IRUN

TEL: 943 62 66 84 - Faxe: 943 62 65 85

Posta elektronikoa: [inmolaizola@euskalnet.net](mailto:inmolaizola@euskalnet.net)

API 316

Salmenta

Alokairuak

Promozio berriak

Aholkularitza

**Fernando San Martín, Euskarako ordezkaria**

## “Euskara Planaren lehentasuna gazteen artean erabilera sustatzea da”

Azken hilabeteotan Udalbatzak euskararen aldeko bi dokumentu garrantzitsu onartu ditu: 2010-2012 epealdirako Irungo Euskara Biziberritzeko Plana eta udal administrazioan gure hizkuntza normalizatzeko Plana.

### - Laburki azalduta, zertan dautza bi planak?

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) Eusko Legebiltzarrak onartutako dokumentua da. Ardatza erabilera sustatzea da. Plana garatzea udalei dagokie, nork bere hizkuntza-errealitateari egokituz. Guk 2006-2008 epealdian abian jarri genuen, hainbat gizarte eragileren parte-hartzeaz osatu ondoren. Bestetik, udal guztiek administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko plan bat landu behar dute. Azken hau disenatzeko orduan oso zehatzak izatea izan dugu xede. Nabarmendu nahi dut bi Plan horiek gehiengo politiko handi baten babesa lortu dutela.

### -Zein tresna baliatu duzue?

Udal Euskara Zerbitzua Arlo bilakatzea lortu genuen, euskararen normalizazioak daukan garrantzia eman aldera. Horrela, euskararen erabilera udal arlo guztietan bultzatzea errazagoa gertatzen da.

Sistema honek Udaletik kanpo eragina izan du; esaterako, Eskola Kirola programa, kirola eta euskara uztartzen dituenena. Halaber, gizarteak proposatzen dituen ekimenak bultzatzea ahalbidetzen digu.



Elkarteetan erabilera areago-  
tzeko Kalean Bai programa  
aspaldi jarri genuen abian,  
baita enpresetan nahiz merka-  
taritzan euskara sustatzekoak  
ere.

Ahaleginak batu ditugu hiritar-  
rrak euskaraz mintza daitezen  
eta mintzatuz goza dezaten;  
alegia, soilik titulu bat esku-  
ratzeko tresna izan ez dadin.

### - Zer oztopo berezi du

#### Irunek?

Gipuzkoako beste herri ba-  
tzuetan baino gutxiago era-  
biltzen dela. Zorionez, orain  
dela 25 urte gutxiago entzu-  
zen zen. Berebiziko garrant-  
zia ematen diot lehenengo  
hitza euskaraz esateari.  
Horixe lortu nahi dugu hiritar  
bat udal langile bati zuzentzen  
zaionean. Lotsa, zalantzak eta  
beldurrak ezabatu nahi ditugu.

### - EBPN berriak zein lehenetasun du?

Gazteak, familiak eta aisial-  
dia. Gazteek eskola orduetatik  
kanpo, hau da, aisialdian hitz  
egitea giltzari da. Horretan  
beste administrazioen lagun-  
tza beharrezkoa da; adibidez,  
jokoak euskaratzeko.

Elkarteekin lanean ari gara  
jada, sustatzeko modua eraba-  
ki aldera.

### - Plan honek lehenengo epealdikoak baino aurre- kontu eskasagoa du.

Bai, lehenengo epealdian  
baino gutxiago inbertituko  
dugu: 1.776.000 euro.



Kontuan izatekoa da aurre-  
kontu murrizketak udal arlo  
guztiak ukitu dituela. Dena  
den, helburuak ez dira aldatu.  
Hainbat hobekuntza egin lite-  
ke dirurik gabe; hala nola,

udal langileek lehenengo  
hitza euskaraz esan dezatela  
eta euskaraz produzi dezatela.  
Nik uste dut areririk handie-  
na ez erabiltzeko borondatea  
dela.

## Ekintza adierazgarrienak

- Euskara Aholku Batzordea berrantolatu eta lan egiteko forma berrikusi
- “Merezi duelako” plana: familietan eta familiei eskaintzen zaizkien zerbitzuetan (haur parkeak, haurtzaindegia, produktuak...), euskararen erabilera indartzeko
- “Familiaola”: familiei begirako ekintza-eskaintza
- Gazteen lagunartekoen hizkuntza-ohiturak aldatzeko plana eta ekimenak
- Gazteei begirako formazio programa bat antolatu, aisia euskalduntzeko protagonistak beraiek senti daitezen eta proiektuak bidera ditzaten.
- Euskaltegien arteko koordinazio lan-mahaia eta Mintzalaguna programa indartu.
- “Irun=2+1” merkataritza euskalduntzeko ahaleginetan jarraitu sektore zehatzagoetan: okindegiak, barazki-dendak, arraindegia...
- Irungo akademiekin elkarlanean jardun, euskararen erabi-  
lera areagotzeko

## Urrats berria administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko

Irungo Udalak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onetsi zen, talde politiko guztien aldeko botoekin eta ezker abertzaleko zinegotzien abstentzioarekin. Planaren asmoa da Irungo Udaleko hizkuntza ofizialak zerbi-tzu-hizkuntzak, lanekoak eta hirugarrenekiko harremanetan erabiltzekoak izatea. Helburu hori lortzeko, alde batetik, euskara Udalaren beharretara egokituko da; bestetik, erabiltzeko modu eta eremu berriak bilatuko dira kanpo- eta barne-komunikazioetan.

Alde horretatik, Irungo Udaleko hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak jasotzen ditu Planak, bai ahozko komunikazioetan bai idatzizkoetan, eta eremu askotarikoetan, hala nola, administrazio-kontratazioan, argitalpenean, erregistroan, Interneten eta Intraneten, eta abarretan. Fernando San Martinen esaneko, asmoa da Ualean euskararen erabilerari buruzko Ordenantza ondorio praktikoetara eramatea eta operatibizatzea.

Diagnostiko kuantitatibo eta kualitatibo batekin abiatzen da plana. Azterlan hori Udaleko ia 300 langileren datu eta iritzietan oinarritzen da. Datu horiexek egituratu dute dokumentua (langileen euskararen ezagutza-maila eta ama-hizkuntza, kalitatea eta euskara, etab.).

Planak bi urteko iraupena dauka. Aldi horretan, Udaleko 159 langilerekin modu zuzenean lan egingo da, eta 234rekin, zeharka. Gainera, koordinazio-organo bat ere izango du: hizkuntza ofizialak kudeatzeko batzordea. Arlo guztietako teknikariek, talde politiko guztietako ordezkariak eta ordezkariak sindikaleko kideak osatuko dute batzordea.

Fernando San Martinek ezarri nahi den metodologia berria azpimarratu du, eta aipatu du "Udaleko arlo eta erakunde autonomo guztiek plan bat egin beharko dutela, beren egoeratik



abiatuta eta hizkuntza ofizialen erabilerarako udalbatzak onetsitako irizpideak betetzea helburu nagusitzat hartuta". Horrez gain, esan zuen "Irungo Udalak bi hizkuntza ofizial dauzkala eta errealitate hori kudeatu beharra daukala edozein udal dependentzian".

Plana [www.irun.org/euskara](http://www.irun.org/euskara) udalaren web orriko euskarako atarian kontsulta daiteke.

### Datu esanguratsuak

- Irungo Udaleko 10 langiletatik 3ren ama-hizkuntza da euskara (euskara soilik %23rentzat, eta euskara eta gaztelania %8rentzat).
- Udaleko langileen %61 elebiduna da; hau da, ondo edo nahiko ondo ulertzen eta hitz egiten du euskaraz eta gaztelaniaz.
- Udalean, eguneroko lanean, %21 inguru erabiltzen da euskara.

# “Mondragon Unibertsitatearen hezkuntza-eredua oso berritzailea da”

## - Zergatik aukeratu zenituen Enpresagintza ikasketak eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

DBHko azken mailan zientzien bidea baztertu nuen. Ordurako ekonomia oso gustuko nuen eta, denbora pasa ahala, aukera horrek gero eta gehiago erakarri ninduen.

Ikasketak Mondragon Unibertsitatean burutzea erabaki nuen; alde batetik, etxetik gertuen dagoena delako eta, bestetik, ate irekien aurkezpenean ikasketa programa oso egokia dela iruditu zitzaidalako. Programak alderdi praktikoari garrantzi handia emateak bereziki erakarri ninduen.

## - Zer iruditzen zaizu MUREn hezkuntza-eredua?

Oso ona, egokia eta berritzailea. Sistema berri hau ez datza dena buruz ikastea, eta hiruhilekoa gainditzea ez dago azterketa bakar baten baitan. Talde lanak eta tartekako kontrolak eguneroko ikastera bultzatzen zaituzte. Gaiak ongi ulertzeko eta ikasleak arduratsu jokatzeko ikas dezan metodo proposa da.



## - Nola ikusten duzu zeure etorkizuna?

Banku batean lan egin nahi nuke, jendearekin harremana izatea eskatzen duen lanpostu batean.

## - Irungo Campusean erakuntza berria inauguratu da berriki. Zer iruditzen zaizu?

Leku falta genuen; beraz, orain erosogo gaude. Ikasgela gehiago izateaz gain, liburutegia handitu dute eta taldeko lanak egiteko espazioa irabazi dugu. Eraikuntza modernoa da, praktikoa eta ikasleen beharrei egokitzen zaiena.



## - Zer moduzkoa da giroa?

Primerakoa. Ikasle gutxi gara, gelako 25 bat. Horrek ahalbidetzen du irakasleekin harreman estua eta konfiantzazkoa izatea. Hortaz, gustura ikasten aritzeko faktore garrantzitsua da. Ikaskideen arteko giroa ere ona da.

# Irungo Garagunea: adimen urrikoak integratzea xede

Edozein pertsonak bezala nahiak, ame-tsak, trebetasunak eta mugak dituzte. Edozein pertsonak bezala gizartean integratu eta errealizatu nahi dute. Adimen urrikoek, ordea, laguntza berezia behar dute. Goyeneche Fundazioaren Irungo Garaguneak tresna pertsonalizatuak eskaintzen dizkie bizimodu normala erdiesteko. Lorpenen erakusle, eguneroko jarduera irribarretsu aletzen dutela.



Felix, Emi eta Itziar, pantailari so. Poza darie. Begien parean Garagune zentroko hiru erabiltzaile hauek egunero burutzen dituzten ekintzen inguruko ikus-entzunezkoa dute. Ikasten edo lanean ikusten zaienean, harro; poteatzen, museo batean edo dantzan, gozaten. Gaur egun adimen urrikoekin lan egiteko metodoa ez datza profesionalak erabiltzaileari komeni zaiona erabakitzean, baizik eta ekintza plan indibiduala erabiltzailearen eta familiaren parte hartzearekin egitean, beti ere komunitatean integratzea xede izaki. Ekintza plana diseinatu aldera, lehenego urra-



tsa erabiltzailea sakon ezagutzea da: bere nahiak, helburuak, beharrak, mugak, gabeziak eta halako hamaika ezaugarri aztertzen dira. Ondoren, familiaren iritziekin osatzen da informazioa. Jarduera planaren emaitzen balorazioa etengabe egiten da, funtzionatzen duenaren eta ez duenaren arabera aldaketak egin ahal izateko.

### Eguneroko martxa

Astelehenetik ostiralera Garaguneko 21 erabiltzaileak furgonetaz Jacobo Arbelaizen dagoen zentrora iristen dira. Goizeko lehenengo jarduera biltzea da, egunean zehar egingo dutena zehazteko. Batzuek taldean egiten dituzte, besteak bakarkakoak dira. Zentroan burutuko dituzte batzuek; besteek, kanpoan.

Filosofiaren zutabeetako bat autonomia pertsonala garatzean eta ardurak ematean datzanez, bada, zentroko etxeko lanak txandaka egiten dituzte, hala nola, bazkaltzeko mahaia atontzea, arropa garbitzea edo erratza pasatzea. Gainera, ostegunero erabiltzaileek bazkaria sukaldatzen dute.

Garagunean bertan gauzatzen duten jarduera nagusietako bat bitxiak egitea da. Helburua erabilera ematea denez, bada, azoka txikia antolatzen dute zentroan astean behin. Halaber, musika entzutea, ordenagailuan aritzea edo puzzleak montatzea zentroan aurrera eramane daitezkeen ekintzetako batzuk dira.



Garaguneko antolatutako jarduera bat.

Zentrotik kanpo bada kirola egiten duenik -fitness, igerilekua- edo ikastaroak -pintura, euskara, areto-dantzak, informatika...-. Irteerak ere ardatz garrantzitsua dira. Hala, hondartzara, erosketak egitera, museoetara eta, nola ez, potatzera joan ohi dira. Edozein gizaki bezala laguntza jasotzen dute, baina emateko premia ere badute zoriontsu bizitzeko. Nork pentsa lezake adimen urrikoak boluntarioak izan zitezkeela? Bada, Irungoak zaharren egoitzetara joaten dira bisitan.

## Ileapaintzailea, euskara ikaslea eta supermerkatuko langilea

Komunitatean integratuta sentitzeko lan bat izatea edo ikaslea tresna baliagarriak dira adimen urriko pertsona batzuentzat. Hala, Emik ileapaindegi batean laguntzen du, eta Trebeki eskulandendaren ere lan



egiten du. "Ilea garbitzen dut, baldak garbitu... Oso pozik nago". Juan Cruzek supermerkatu batean kartoiak bildu eta zaborrontzietara eramaten ditu. Gainera, kotxe-

ak gustuko dituenek, tailer batean konponketa lanetan aritzen da. Ignaciok Brasileko bonboi moldeak garbitzea du goizeko zeregin nagusi. Felixek urteak daramatza Elkar liburudendan laguntzen. Harro agertzen da

bere lankideekin argazki batean. Itziazrek bere ametsa gauzatu ahal izan du: euskara ikasten ari da Argoiak Elkartean.

Juana Bengoechea, Alderdi Popularreko zerrendaburua

## “Gobernua eta hiritarrak dibortziatuta daude, lehentasunei dagokienez”

1999az geroztik, PPko zinegotzia da. Harrez gero, udal politikan oposiziotik eta gobernutik aritzea egokitu zaio. Oraingo txandan, lehenbizikoz, zerrendaburua da.

- Irungo PPk lau zinegotzi ditu. Zer emaitza lortuko duzuela uste duzu?  
Zundaketen arabera PPren gorakada nahiko handia izango da Irunen.

- Azken agintealdiko gobernu sozialistari zer deritzozu?

Irungo gobernu sozialistak krisiari bizkarra eman dio, Espainiako PSOEn ereduari jarraiki.

Udal gobernuak bere jarraibidea hemendik 20 urtetarako proiektuetan oinarritu du; hori zentzugabekeria da. Horren lekukoetako bat da Irun 2020 Bulego Estrategikoa. Datorren urte-



ko Irun diseinatzen ibili beharko genuke, hiritarrak kezkatzen dituen hori, hain zuzen ere. Pentsa zenbateraino aldatu den gure bizimodua azken 10 urteotan! Bada, 20 urte barru beste zirkunstantzia eta behar batzuk nagusituko

dira, plan horrek ezin erantzungo dituenak. Ni planifikatzeko modu irekiago eta malguago baten alde nago.

Beste adibide bat da trenbidearen inguruko espazioaren transformazioa, gobernu honen izarretako bat izan dena. Gobernuak bere lorpen handitzat jo du protokoloaren sinadura; baina dokumentuan administrazio zenbaitek leku horretan zerbait egin nahi luketela adierazten dute, besterik ez. Ez da zehazten diru kopururik, ez eperik, eta ez da kudeaketa sozietaterik aipatzen.

Horrelako proiektuak aurrera ateratzeko ahaleginak egin behar izateak langabezia bezalako arazoei garrantzia ematea galarazten du.

Hiritarrak eta gobernu dibortziazatuta daude, kezkei eta lehenetasunei dagokienez.

- Baina aurreko agintealdian PSE-EEren sozioak izan zinetenez, bada, zuen helburuak ez dira hain ezberdinak izango.

Ez ditugu perspektiba hain ezberdinak izan, baina bai lehenetasunak eta kudeatzeko moduak. Gainera, alor batzuetan, ingurunean esaterako, gobernu honek ez du ezer egin.

- Oposiziotik zer ekarpen egin du PPK?

Oposizio izateak baditu abantailak: gaiak zehatz mehatz ezagutzera behartzen gaitu eta horrek ikuspegi orokorra ematen digu, gobernuakide izatean galtzen dena.

Sinistuak gaude gobernu on baten oinarria dela oposizioaren eta agintean dagoen taldearen arteko elkarrekintza.

Oposiziorik gabeko gobernu batek ez du emaitza onik, ezta oposizio suntsitzailerik ere. Oposiziotik, gobernuaren proposamenen alde egin izan dugu; beste batzuetan ezezkoa eman izan diegu, alternatibak ere aurkeztu izan ditugu eta politika-ekintzetarako alor berriak ere erakusten saiatu gara. Oro har, egindakoaz harro gaude.

- Zein dira progaramaren proposamen



Irungo PPKo 10 lehenengo hautagaiak.

nagusiak?

Gure programaren izenburuak gure asmoak laburbiltzen dituela uste dugu: *Zer behar duzu? Zer behar dugu?*

Gizarteak oparoaldian proposamenak egiten dituen lidergoa behar du, eta krisian, erantzunak ematen dituena. Horregatik, gure hauteskunde programak beharizanak ase nahi ditu:

- Bazterketa ekonomiko-sozialean egoteko arriskuan dauden pertsonen erantzun.

- Sumingarritasuna sortzen duten elementuak ezabatu. Horietako bi dira aparkaleku eskasia eta segurtasun eza.

- Giza-kapital irundarra sortu behar dugu, Irunen etorkizunarekiko denak konprometitua gaudela sentiaraziko diguna. Hartara, asoziazionismoa bultzatzea ezinbestekoa da.

- Gazteriarekin konpromiso sendoa: asoziazionismoa, formazio eskaintzak nahiz laguntzak bultzatu. Halaber, aisialdi eta kultur eskaintzak gazteen interesekoa izan behar du, haien nahiei erantzuten diena.

- Ekonomia dibertsifikatu behar da. Sanoagoa da sektore bakar baten menpe ezbadago. Hala, eskualdeko lehen sektoreak etorkizun oparoa duela uste dugu.

- Eta euskarari dagokionez, zein ildo jarraitu nahi duzue?

Maite dugun gure hizkuntzetako bat izatea lortu behar dugu. Ondorioz, jendeak atseginez erabiliko du euskara.

Oinatz Mitxelena, Bilduko zerrendaburua

# “Irun euskalduna, justizia soziala eta herritarren parte-hartzea nahi dugu”

Oinatz Mitxelena Irungo zerrendaburuen artean gazteena da. Hogeitabost urteko ostalaritza-langile hau itxaropentsu dabil Epaitegi Konstituzionalak Bilduren hautagaitzak onartu berri dituen honetan. Herritarren proposamenak bilduz landutako hauteskunde programa gauzatzea du ilusiorik behinena.



- Zenbat zinegotzi lortuko duzuela uste duzue?

Aurrekoetan ezker abertzaleak 3 lortu zituen eta EAK ia bat. Lau izango garelakoan gaude, eta baliteke 5.era ere iristea. Aukera gehiago izatea izan da koalizioa sortzeko asmoa.

- Indarkeriarekiko hausturaz mesfidati

dabiltzanei zer esango zenieke?

Ezker abertzaleak pauso garrantzitsua eman du prozesu demokratikoaren alde. Zerrendan goazen guztiek dekalogo bat sinatu dugu, non indarkeriaren aurka gaudela agertzen dugun. Horixe azpimarratu nahi dugu. ETA erakundea ere prozesu horren alde dago eta ziur naiz ez dituela planak zapuztuko.

- Zein da Irungo Udalean aurrera eram nahi duzen politikaren ardatza?

Irungo herri euskalduna izatea, justizia soziala bultzatzea eta politikan herritarren parte hartzea bultzatzea.

Positiboa deritzogu Hirigintza Plan Orokorren erakusketa 4 hilabetez luzatu izanari, jendeak parte har dezan. Baina areago joan nahi genuke. Beste adibide bat aholku batzordeak dira. Guk benetako garrantzia ematea bultzatzen dugu.

Bilduren apostu berria da herritarren parte hartzea udal aurrekontuen diseinuan.

- Zein dira udal programaren proposamen nagusiak?

Programa herritarren parte-hartzearekin osatu dugu. Alor guztietako jendearekin eta ordezkariarekin bildu gara. Oso esperientzia ona izan da.

Hirigintza

- Etxebizitza: Alokairuko alde egingo dugu. Hutsik daudenen errolda egin eta aloka daitezkeen neurriak bultzatu. Berri gehiago ez dela eraiki behar uste dugu.

- Alde Zaharraren berpiztea.

- Auzo Elkarleen arteko desorekaren azterketa egin.

Mugikortasuna

- Bidegorriak eraiki, zenbait lekutan autoen abiadura orduko 20 edo 30 kilometrora mugatu eta autobusen maiztasuna handitu.

Ekonomia

- Krisiaren aurka azpikontratazioekin bukatu. San Juango obran ari diren enpresek langileen lan-hitzarmenak bete ditzatela lortu nahi genuke.

- Lehen sektorea suspertu.

Kultura

- Kultura turismoari begira soilik ez bultzatzea. Kultura gehiago da: herri honek badu kultura bat. Auzoetara eraman nahi dugu eta taldeei erreztasunak eman.

- Oteizaren tailerra izan zena artisten tailerra



Zerrendako sei lehen hautagaiak.

izan dadin birmoldatu.

Berdintasuna

Benetako politika feminista egin, Berdintasunaren udal arloa sortu, baita emakumeen udal etxea ere.

- Alardearen inguruko gatazkaren konponbidea bultzatu.

Ongizatea

- Gizarte-laguntza auzoetan eskaini.

- Zaharren egoitzak Foru Aldundiak kudea ditzan lortu, haren eskumena baita.

- Martindozenea gizarte-aterpetxea gisa erabili.

Ingurumena

- Jaizkibel eta Aiako Harriaren arteko korridorea babestu.

- AHT-ren aurkako ekimenak burutu.

- Atez ateko zaborren bilketa

Gazteria

- Ikastoki kopurua handitu

- Kontsumoarekin lotuta ez dauden aisialdi-guneak sortu.

- Herriko jaiak antolatzeke gazteen iritzia kontuan izan.

Kirola

- Plaiaundiko instalazioak Zubietara eraman.

- Patronatuak kudeatu behar ditu kirol instalazio guztiak

- Eskoletako azpiegiturak asteburuetan ireki.

# Bidasoa Irun ozta-ozta salbatu da



Ezkerrean, Paco Barthe jokalaria Ohorezko mailan jarraituko zutela jakin zuenean. Eskubian, Fernando Herrero entrenatzailea. Behean, gaztetxo talde bat berri ona ospatzen.

**B**idasoa Irunek sasoi guztian zehar pairatu du sailkapeneko azkeneko postuetan egoteak ekartzen duen sufrimendua. Sasoi ia abaildua egon arte ez da erabaki Ohorezko mailako Zilar kategorian jokatzen jarraituko zuen ala ez. Maiatzaren 7an Artalekun jokatu zuen partiduaren ondoren jaso zuen berri pozgarria: salbatzeko txartela esku artean zuen.

Ademar B-ren aurkako nogehiagoka irabazi behar zuen nahitaez, eta Pinta Torrelavega-Huesca partiduan berdinketa gertatzea nahikoa zen. Bi baldintzak bete zirenean, Artalekun jai giro itzela zabaldu zen. “Sasoi osoan zehar gorriak ikusi ditugu. Merzei genuen mailan mantentzea. Honek balio du jendeak jakin dezan zer den Bidasoaren kamiseta eramateak sentiarazten digun



harrotasunagatik borroka egitea”.

Iker Antonio kapitainak bereziki eskertu zuen zaletuen aldetik taldeak jaso duen babesa. “Artaleku gainezka egon da. Zaletuek 11 bat merzei dute”.

# Irungo etxebizitza merkatuak geldo jarraitzen du 4. urtez



2007an krisi ekonomikoak sektore inmobiliarioa jo zuenetik salerosketa-merkatua oso motela da Irunen. Bigarren esku-koak eta berriak saltzeko zailtasunak daude, eta eraiki gabeko zenbait sustapen atzeratu behar izan dituzte. *Burbuilaren* garaiko salerosketa errazaren katea eten da. Profesionalengana jo dugu zergatien eta ondorioen bila.



higer bidea, 6-  
20280  
hondarribia.  
gipuzkoa  
t(34) 943 64 27 12

[arrokaberri@arrokaberri.com](mailto:arrokaberri@arrokaberri.com)  
[www.arrokaberri.com](http://www.arrokaberri.com)



Sektore inmobiliarioko profesionalak bat datoz egoeraren berri ematean: duela 4 urte, krisia hasi orduko, ikaragarri moteldu zen, eta bere horretan jarraitzen du. Burbuilak eragin zuen kate-begia etena dago; alegia, etxe berria erosi ahal izateko etxe zaharra saldu ezin dabiltzanen kopuruak gora egin du. “Eskaera egon badago, baina katea martxan jartzeko beharrezkoa den finantzazioa lortzea zaila da”, azaldu du Ekar inmobiliaria zerbitzuetako Jose Manuel Basalok. “Ez bakarrik bezeroei, bankuek sustatzaileei maileguak emateko orduan ere orain eskatzen zaizkigun bermeak zorroztu dituzte; beraz, erosleen konpromisoa ziurtatu behar dugu”, adierazi du Altzukaitz kalean etxe berriak eraikitzen ari den Etxe Onenak enpresa sustatzaileak. “Egoera honek promozioak pixkanaka merkaturatzera behar-tzen gaitu”.

Salneurriari dagokionez, apaldu egin dira azken urteotan. “Ez, ordea, bezeroak nahi bezainbat. Erosleak oso merke erosi nahi eta saltzaileak lehengo prezioak gogoan dituzenez, bada, merkeegi iruditzen zaio”, dio Basalok. Hori horrela, benetan beharra daukanak soilik jartzen du etxea salgai. “Kasu bakanak dira garesti erosi eta orain mailegua ezin ordaindu dabiltzalako saldu behar izan dutenenak”.

Sustapen berrikoen kasuan ere salneurriek pixka bat behera egin arren, gehiago ezin dela diote Etxe Oneneko profesionalak “lur-sailak



Altzukaitz kaleko etxe berriak.

garesti erosi genituelako”.

Zorionez sektorearen moteltzeak ez du ekarri gurean Mediterraneo aldean gertatu den sekulako hondoratzea. Jose Manuel Basaloren ustez, arrazoia da “hemen jendeak ez duela bigarren etxebizitza erosten inbertsio gisa, baidarik eta bizitoki hobea nahi duelako; helburua ez da epe laburrean etekin handiak poltsikoratzea”. Bestetik, salerosketa merkatuaren krisiak alokairuko bizkortzeak ekarri du herrestan. Hain justu etxea alokatzearekin lotuta dauden zerbitzu gehiago eskaintzean datza bitartekaritza negozioen estrategietako bat.

Etorkizunari begira aldaketa nabarmenik ez da igartzen, baina Ekar-eko jabeak argi ikusten due une aproposena dugula erosteko. “Orain datorren urteko prezioetan eros daiteke”.



## Zer egin behar da Gipuzkoa TB Txingudi LTDz ikusi ahal izateko?

29. KANALEAN sintonizatu. Kanal horretan seinalerik jasotzen ez baduzu, jar zaitez harremanetan antena instalatzailearen batekin.



Josu Yela, Kutxa Irun

## “Mailegu eskaerak behera egin du lanbeziarengatik eta etxeen gehiegizko prezioengatik”

### - Zergatik ematen du Kutxak mailegu gutxiago?

Kopuruak behera egin du, baina ez Kutxak eman nahi ez duelako; eskaerari erantzuteko nahikoa likidezia eduki arren, eskaera murriztagoa da. Alde batetik, kontuan hartzekoa da langabetuen erdia baino gehiago 25-45 urte bitartekoa dela, hain zuzen etxebizitza premia dutenen adin-tartea. Bestetik, etxebizitzaren prezioa txikiagotu bada ere, oraindik gehienentzat gehiegizkoa da.

### - Gogortu al dituzue mailegua emateko baldintzak?

Baldintzak ez dira ia gogortu azken boladan. Kutxak betiko politika zuhurraren bidetik jarraitzen du, bai dirua erostean bai saltzean. Politika horri esker kaudimen maila ona dugu. Betidanik eskatu izan duguna da ordaintzeko ahalmena izatea. Langabeziak eta lan ez egonkorrek gora egin duten heinean ahalmen hori eskasagoa da. Gainera, ez da ahaztu behar Espainiako Bankuaren gomendioa: bezero baten zorrak ez duela bere diru-sarreraren % 40 gaintu behar. Kinkaren alderdi ona da gaur egun interes-



tasak baxuak direla.

### - Emandako kredituak ordaintzeko orduan berankortasuna handitu da?

2009an handitu zen, baina 2010ean eta 2011ko lehen hilabete hauetan Bidasoaldean pixka bat apaltzea lortu dugu. Lagungarri gertatu dira azken urteotan merkaturatu ditugun aseguru-sorta bateratuak, hainbat egoera estaltzen dituztenak: langabezia, balioezintasuna, heriotza...

Gipuzkoa hiribidea, 26.  
IRUN  
**Tel: 943 666 050**  
Fax: 943 618 075  
[gestoria.arana@garana.com](mailto:gestoria.arana@garana.com)

## Krisiak ez du etxebizitza babestuaren eskari kopuruan aldaketarik ekarri

Gaur egun IRUNVIK, (Etxebizitza Udal Sozietatea) etxebizitza babestu bat esku-ratzeko onartutako 2.000 eskari ditu. Krisi ekonomiko-ak ez du eskari kopuruan aldaketarik ekarri, eta salduta daudenetan ez da gorabehera nabarmenik gertatu. “Ez da etxebizitza bat ere enbargatu. Bigarren eskukoaren artean, soilik bat saldu behar izan dute”, adierazi du Irunviko gerente Juan Jose Jaunarenak. “Nabaritzen dena da ordaintzeko orduan berriki erosi dutenek aurreko zozketetakoek baino zailtasun pixka bat gehiago dute-la”.

### Altzukaitz eta Oñaurre, abian

Datozen urteotan Irunen babestutako 1.900 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da. Altzukaitz kalean (Arbes) dagoeneko 74 egiten ari dira. Oñaurreko eremuko abian den sustapen handiena dugu: lehenengo fase honetan 300 egingo dira, horietatik 80 errenta babestukoak eta gaintzekoak, azalera eskubidean. Gainera salneurri kontzertatuko beste 48 eskainiko dira. Bigarren fasean -heldu den urtean ekingo zaio- babestutako beste 80 eraikiko



### Etxebizitza babestuak Irunen

Oñaurreko eremuan eraikitzen ari diren etxebizitzaren infografia.	Eraikitzen ari direnak	Altzukaitz Oñaurre (1go fasea)	74 300
	Izapideak prozesuan	Oñaurre (2. fasea)	96
		Gazteentzat errentan	50
		A. Larzabal kalean	40
		Gazteentzat errentan	
		San Migel-Anaka	844
Txenperenea	600		

dira, salneurri mugatuko 16 eta gazteentzat alokatzeko 50. Azken erregimen honetako 50 altxatuko dira Pio XII.a plazatik hurbil dagoen Alberto Larzabal kalean.

### San Migel-Anakako operazio handia

San Migel-Anakakoa babestutako etxebizitza-operazio historikoa izango da, 844 proiektatu baitira. Lanak datorren urtean hasiko direla iragarri du Irunvik.

Azkenik, Txenpereneko (Lapitze) sustapen potoloa aipatu behar da, 600 etxe aurreikusten dituen.

# irunero aldizkaria non eskura daiteke?

## **ANAKA**

ANAKAKO KASINOA  
KUTXA  
BURDINDEGIA (Kutxaren  
aldamenean)  
ANAKAKO AUZO ELKARTEA  
BIDASOAKO OSPITALEA

## **BELASKOENEA:**

TXIMISTA TALDEA (Parrokia)  
BELASKOENeko AUZO  
ELKARTEA

## **ARBES eta PALMERA-MON- TERO**

VICTORIA TABERNA  
(Altzukaitz)  
LA AGRICOLA  
PALMERAko HAINBAT  
KAFETEGI-TABERNATAN

## **BEHOBIA eta ARTIA**

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIA-  
LA  
TRINKETE TABERNA (M<sup>a</sup>  
Juncal Labandibar kalea)  
AZKEN PORTU KIROLDEGIA  
KUTTUNA HAUR ESKOLA  
(Artiako Caro Baroja plaza)

## **ERDIALDEA**

HERRI JAKINTZA (Nafarroa  
hiribidea)  
BRASIL gozo-denda  
ELKAR liburu-denda  
OSKARBI Liburudenda  
EUSKADIKO KUTXA (Kolon)  
KUTXA (Kolon)  
JUBILATUEN ETXEA (Luis  
Mariano)  
VIRGINIA kafetegia  
SIRIMIRI taberna  
KUTXA (Gipuzkoa hiribidea)  
KIOSKO 33 (Argentinari  
Errepublikari)  
HAZ-SAC

FOTOKOP (Foruen karrika)  
GAZTE INFORMAZIO BULE-  
GOA (Foruen karrika)  
EUSKARA Arloa (Foruen karri-  
ka)  
ACUBI (Foruen karrika)  
IZOKINAREN KOFRADIA  
(Kale Nagusia)  
ARANO taberna  
MANOLO taberna  
SARGIA taberna  
AEK Euskaltegia  
ARTXIBOA eta LIBURUTEGIA  
MENDIBILGO MUSIKA  
KONTSERBATORIOA  
ARTALEKU KIROLDEGIA

## **DUNBOA**

TOMA PAN Y MOJA (S.  
Pedro)  
OSASUN ZENTROA  
KUTXA (Nafarroa hiribidea)  
ERKA (Salvador Etxeandia)  
ALDABE paper-denda

## **LAPITZE**

ANBULATORIOA  
AMAIA KZ eta Pio XIIIko kios-  
koa.  
OGIBERRI (Serapio Mujika)  
EUSKADIKO KUTXA (S.  
Mujika)

## **MEAKA**

MEAKo Bizilagunen  
Elkartea  
ERROTAZAR  
OLA Sagardotegia

## **OLABERRIA**

ESTEBENEA taberna  
LABEKO ETXEA jatetxea

## **ALDE ZAHARRA**

UDAL EUSKALTEGIA  
ALDE ZAHARREKO BIZILA-

## **GUNEN ELKARTEA**

(Larretxipi)  
EKT (Larretxipi, 12)  
KURPIL KIROLAK (Peña k.)  
HAZIA taberna (Peña kalea)  
ESKINA taberna  
EUSKADIKO KUTXA  
(Urdanibia)  
KULTURA Arloa  
(Ospitale Zaharra)

## **ANTZARAN**

NEKANE paper-denda  
Lekaenea

## **SAN MIGEL**

KOLON burdindegia  
(Hondarribia kalea)  
KUTXA (Zubiaurre)  
EUSKADIKO KUTXA  
(Zubiaurre)  
SAN MIGELeko AUZO  
ELKARTEA (Luis de Urantz,  
24)  
ATREZZO (Geltoki kalea)

## **SANTIAGO**

AGUIRRE okindegia (Junkal)  
CANON (Santiago k.)  
SANTIAGO AUZO ELKARTEA  
BIKOTE (Erromes plaza)

## **URDANIBIA**

TANDEM kafetegia

## **KATEA**

KATEKO AUZO ELKARTEA

## **LARREAUNDI**

OKINDEGIA (Eguzkitzaldea k.)  
AUZO ELKARTEA  
(Iñigo Loiolako)  
LARRARTE Harategia  
(Eguzkitzaldea, 17).

## San Juan Arria plazara itzuli da

San Juan Arri zutabea lehengo tokian jarri dute berriz, maiatzaren 2an, San Juan plazaren eta San Martzial kalearen arteko ertzean. "Lauzak plazaren inguru horretara iristen direnean jarri beharra zegoen, horiek inguratu egingo baitute zutabea", esan du Muguel Angel Paez Obretako ordekaririk. Bide batez, ordezkariak plazako obrak nola doazen adierazi du: alde batetik, aparkalekuaren egiturari dagokionez, bukatuta daude solairuetako forjatuen lauza-lanak, baita Prudencia Arbidetik sartzeko arrapalak eta Eliza kaletik sartzekoa ere, eta Kale Nagusiko atzealdeko arrapalan lan egiten ari dira. Oinezkoentzako sarrera guztiak (eskaile-  
rak) bukatuta daude.

Páezek esan duenez "ekainaren amaierarako plaza zolatua egotea espero da, behin betiko izan behar duen moduan, obaloraino. Gainerako zolatze-lanak obran jarraituko dute.



2007ko martxoan haizeak bota zuenetik zutabea ez da lehengo tokian egon.


## Larreaundiko azpiestazioa kenduko dute

Udalak eta Iberdrolak Larreaundiko azpiestazioa lekuz aldatzeko hitzarmena sinatu dute.

Aho batez onartu den hitzarmenean Iberdrolaren azpiegitura elektriko berria Txenperenean kokatuko dela jasotzen da.

Sinadura ekitaldian parte hartu dute Jose Antonio Santano Irungo alkateak, Fernando Llarena Iberdrolako ipar eskualdeko zuzendaririk eta Larreaundiko auzo elkarteko kide zabaitek.

Leku aldaketari esker, etxebizitza dentsitate handiko auzo honetatik jada eskasa geratu den azpiegitura kendu eta potentzia handiagoko bat eraikiko dute, Oñaurre eta Txenpereneko auzo berriei zerbitzua ematea ahalbidetuko duena. Azpiestazioa Larreaunditik kentzea auzo



elkartearen aspaldiko eskaera izan da; horregatik, Udalak Iberdrolari leku aldaketa proposatuzion, gaur egungo kokapenak dakartzan arazoak saihestu aldera. Gogora ekarri behar da Larreaundiko azpiestazioa haur eskola baten ondo-ondoan dagoela eta etxeetatik oso hurbil.

# Udako jarduera eskaintza

UDALEKU IREKIAK				
Uda Solas (Dantza, ekintzak...)	3-6 7-10	Uztaila/Abuztua 8:45-13:15	Irun	<a href="http://www.skolamusic.com">www.skolamusic.com</a> 943 63 63 14
Txangoak, jokoak, eskulanak, marrazkia	2 +	Uztaila/Abuztua	Irun	<a href="http://www.kontigoservicios.com">www.kontigoservicios.com</a> 943 57 20 05
Eskaintza gehiago	6-12	Uztaila/abuztua	Irun	Gazte Informazio 943 50 52 40

IKASTAROK				
Informatikako ludoteka	8-11	Uztaila	Irun	Aldaco 943 660144
Buztina, marrazkia, tailerrak, bisita gidat.	7 +	Uztaila-abuztua	Irun	Juncal Alfonso 675 71 74 07
Internet	16 +	Uztaila-iraila	Pio XII.a plaza	<a href="http://www.kzgunea.net">www.kzgunea.net</a>
Bonsaiak	10-15	Uztaila-abuztua	Irun	<a href="http://www.irunbonsai.com">www.irunbonsai.com</a>
Ingelesa (ekintza ludikoak)	3-12	Uztaila (goizez)	La Salle	943 46 93 73 Maiatzaren 15etik
Ingelesa	6 +	Uztaila-abuztua	Irun	<a href="mailto:academia@lacunza.com">academia@lacunza.com</a> Apiriletik aurrera
Jarduera pedagogikoak	Haur eta gazteak	Uztaila-abuztua	Oiasso museoa	<a href="http://www.oiasso.com">www.oiasso.com</a>
Zeramika	5-17	Uztaila-abuztua	Irun	<a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a>
Marrazki eta pintura	10 +	Uztaila	Anaka	<a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a>
Trikitixa eta panderoa	5 +	Uztaila	Irun	943 61 88 39

AUZOLANDEGIAK				
Auzolandegiak	18-30	Uztaila-abuztua	Hainbat leku	<a href="http://www.irun.org/igazte">www.irun.org/igazte</a>



# Poza eta alaitasuna bezalako emozio motibagarriak, bizitzan zoriontsu sentitzeko beharrezkoak

Emozioaz eta adimen  
emozionalez ari  
garenean, maiz emozio  
desatseginak nola  
erregulatu izaten dugu  
gogoan, eta emozio  
atseginak baztertuta  
geratzen dira. Gaur  
**POZAZ** arituko gara,  
azter dezagun noiz  
sentitzen dugun poza eta  
zein den bere funtzioa.



- **POZA** norberak atseginak dituen gertaerak ematen direnean edo nahi genuen helburua lortzen dugunean sortzen den emozioa da.

- Emozio atsegin eta motibatzailea da: Emozio atsegina denez, berriro sentitzen ahalegintzen gara, gustuko duguna errepikatzeko joera baitugu.

Bestalde, pertsona bakoitza ezberdina denez, bakarra eta errepika ezina, gertaera edo helburu berdinak ez gaitu pertsona guztiok berdin alaitzen. Poza balioekin lotu-

ta dago eta gure bizimoduak eragin handia du alaitasuna sentitzeko ahalmenean.

Haur eta helduen pozak ez dira beti berdinak, baina haurren poz bide anitz helduen bidez ikasitakoak dira:

- Gurasoek futbola gustuko badute eta haurrekin pozez jolasten badira, haurrari futbola gustatzen zaio eta poztu egiten du.

- gurasoek mendia maite badute eta elkarrekin naturaz gozatzen badute,



haurrek ere hori ikasiko dute.

Helduok lana egiten dugu, eta gurasook lanaz gain heziketaren ardura dugu; beraz, gure energia gehiena horretan jartzen dugunez, denbora behar dugu guretzat, pozten gaituzten gauzak bizi behar ditugu berriro gure eginkizunei aurre egiteko: kirola egin, lagunekin kafe edo edariren bat hartu, paseatzera joan, eguzkipean irakurri, lagunekin egon edo hitz egin... Helduok ere gure unetxoak behar ditugu gustuko ditugun gauzak egiteko, ALAI eta POZIK sentitzeko. Pozik gaudenean, guretzako

une horiek hartu ditugunean, gure ingurukoe-kin (haur zein heldu) harremanak izateko gogoia dugu eta harreman pozgarri eta atseginak sortzen ditugu. Gure haurrek pozik behar gaituzte, gu ongi gaudene-



an harreman positibo eta aberatsak sortzen ditugu, kalitatezko harremanak.

Haurrei ere antzeko zerbait gertatzen zaie. Eskolan edo ekintza gidatuetan helduen aginduetara aritzen dira, eta gero beraienez denbora behar dute. Haurrek beraien garapenean funtsezkoa den eta POZA bideratzen duen izugarrizko tresna zoragarria dute: JOLASA. Jolasak adin bakoitzean ezaugarri desberdinak ditu; edonola ere, guztiz beharrezkoa da haurrek bizitzen dituen kezka edo tentsioak askatzeko eta lagunekin elkar bizitzen ikasteko.

### **Egin dezagun gogoetatxo bat:**

Gure haurrek ba al dute denborarik lasai

eta askatasunez beste haurrekin jolasteko?

Denen ahotan dago kalean arrisku handia dagoela haurrek bakarrik egoteko, eta hein handi batean egia da; baina horregatik kendu behar al diegu libre jolasteko denbora? Partikularrak, kirolak eta eskolaz kanpoko ekintzak oso garrantzitsuak dira; ordea, helduen aginduetara egon gabe aske jolastea guztiz beharrezkoa da haurrentzat, ezta? Kasu horietan ere gure presentzia funtsezkoa da. Aske jolasteko dira, baina behar bagaituzte; gurasook eskuragarri egotea konfiantzan hezten laguntzen

die. Gu gara babeslekuak, eta aske dabilteza zerbait behar dutenean eskatzea badutela jakinda.

Haurrek eta helduok elkarrekin gauzak egiten gozatzen dugu eta interes komunak bilatzea ona da elkarrekin gozatzen

ikasteko. Zein da denok pozten gaituena? Patinetan ibiltzera joango gara, futbolera jolastu, eta gero esku pilotara, zinemara, lagunentzera... Elkar bizitzeko eta elkarrekin konpartituz gozatu egiten dugu eta denoi gustatzen zaizkigun gauzak egitea funtsezkoa da familian leku bat izan eta zoriotsu sentitzeko. Haurrek handitzen diren heinean gurekin gutxiago egon nahi dute, lagunek garrantzi handia hartzen dutelako; baina orduan ere elkarrekin gustuko edo gozatzeko ekintzak programa ditzakegu.

*Kuttun aholkularitza psikopedagogikoa.*

*MAPI URRESTI ORTIZ*

“Euskal Herriko zinemagintza aztertuko duen lana” idatzi genuen orriotan iaz, apirilean. Aurtengo apirilean *Zeluloidezko begiradak*. (Elkar) kaleratu du Mikel Garcia kazetari-idazle irundarrak.

## Tabuak hausten hasteko era egokia

Ondoko *lerroz lerro*-en tankeran dator *eleak iruten* delako hau: Mikel Garcia Idiakez irundarraren *Zeluloidezko begiradak*. *Euskal Herriko 13 zuzendarirekin hizketan* liburua hartu dugu hizpide.

“Ba al dugu euskal zinemarik? Zer da, baina, euskal zinema?” gaztigatu digu egileak liburuaren hitzaurrean. *Euskal* eta *zinema* hitzek ez dute lokuzio errazik osatzen, ez horixe. Hartara, Garciak Euskal Herriko hamahiru zine zuzendariren hitzak eskaini dizki-gu. Tabuak hasten hasteko era egokia. Bai, horixe.

Baduk-n hamahiru! beraz, (*Badok amairu* hura gogoan). Ez dira denak, baina, liburuiko begiraden bitartez, euskal zinemaren paisaia ez ezik, euskal zinemaren espiritua iradoki digu egileak.

Euskal zinemak –edo balizko zinemak– jatorrian du arazoa. Erran nahi baitut, artean, nazio osatu gabeko baten zinema dela, ez dela beste nazioen aukera eta neurrien araberako zinema. Ez gehiago eta ez gutxiago. *Euskal zinemaz*, hots, euskal nazioaren zinemaz mintzatzea kimera da gaur gaurkoz.

Alabaina, *nazioa* eta *gatazka* hitz kidekoak dira gurean. Euskal gatazka lokuzioa ez da kimera. Erreal da. Euskal zinemaren historiak ari garenean, *Ama Lur* filmetik hasi eta *Euskal Pilotara* bitarte gai politikoez zer esan franko eman dute, franko polemikoak gainera. Horra nazio arazoa, euskal zineman ere ageri da. Horren lekuko bikaina dugu *Zeluloidezko begiradak* liburua.

Liburua eta zinema –baita sortuz eta eraikiz doan euskal zinema ere– nazioa, gatazka eta politika



baino gehiago dira, bistan da. Zinema, oroz gain, artea da, zazpi-garren artea, omen. Artea, nire gustuko, kaosaren adierazlea da. Eta zinemaren kasuan are gehiago, zinema egitea, film bat gauzatzea, pertsonen arteko harreman kaotikoaren emaitza da. Hori pentsatzen nuen, eta hori berretsi dut Mikel Garciaren liburua irakurrita.

Tira, zinema hori baino gehiago ere bada. Historiak eta istorioak ondo biltzea –ongi produzitzea, hitz batez–, gidoia egoki kudeatzea, horiek aktoreen jokoen bitartez

irudietara ekartzea, eta gutxi balitz ongi muntatzea eta ongi zabaltzea... Besteak beste. Hitz batez, zinema arte konplexua da, pertsonen arteko harremanak konplexuak baitira.

Liburuaz gehiago esateko leku gutxi geratu zait (13 zinegile hauen hitzek, gutxienez hamaika aburu eskaintzen dute-eta). Hara, gure zinemaz jakin nahi duenak, zinema maite duenak, hamaika espresio eta jokabide biltzen dituen zinema egin nahi duenak zeluloidezko begirada hauen bitartez badu zer ikasia. Hamahiru zinegileen begiradak bereziak –eta bereziak– bezain interesgarriak –eta anitzak– baitira. Erotzerainokoak, esango nuke. Zinema egiteko erotzera iristeko prest izan behar baituzu, laguna.

Azkenezko hitz sorta hau idazle bilakatzen ari den Mikel Garcia kazetariarentzat da: asmatu duzu. Ederki hautatu, bildu, uztartu eta muntatu dituzu egileek eskaintako begiradak: hitzezko begiradak!

**MIKEL ASURMENDI**



Poeta sortu zitzaien –Jon Benitoz ari gara– eta nor izango balitz bere baitako idazlea hil beharra sentitu zuen. *Aingurak erreketan* lehenetik *Bulkada* honetara bederatzi urte joan zaizkio. Ez alferrik.

## Ainguraren lasta bulkadaz laxatua

Juan Paredes izan zitekeen, baina Jon Benito da. *Txiki* bezala, zarauztarra zauritua da. Benito da: eta Aranberri ere bai. Txikia izan zitekeen, baina segaila da. Bere poesiak ederki adierazi bezala. Bere poesian, baina, ez dago “bezala”rik. Bere poesian “baina”rik badago, ordea.

Haur eria zena Lubaki bandan zerrendatu zen. Lur ebakietako erreketan aingurak jaso eta bota, jaso eta bota, nabigatu zuen. Gazteen arrangurak ez direla samurrak adierazi zigun patxadaz eta sendo. Alabaina, gaztetan pausatuta zituen galdera guztiek ez zuten arraposturik ediren. Ezta gaur egunekoek ere, zorionez.

Aingurak azkenekoz altxatu zituenetik gaur egunera bederatzi urte ibili da errari. Literaturarekin bizitzekotan –ordaindu beharreko– lasta laxatu beharraz jabetu zen. Lasta bulkadaz bota du anartean. Aita ez ezik, ama ere hil beharra izan duela esan digu, baita, bidenabar, idazle izatea bera ere.

Idazlea hil zuen, baina idazlea bizi da. Hil eta gero bere buruari “nor naiz ni” itauntzen jarraitzen baitu Benitok. Amarengandik erditua da, baina ez du haren erdia izan nahi. Ez du aitaren aldetikoez duten –kasurako– baino zalantza gutxiago izan. Alta, berezko bidea urratu nahi du. Bizitzan esperimentatzen ez dena, bizi gal-



Liburua: *Bulkada*  
Egilea: Jon Benito  
Argitaletxea: Susa

dua da-eta. Poeta –persona– libre izan nahi du Jonek.

*Hastapena* –liburuko lehen– poeman abiatu naiz eta Anjel Erro poeta heldu zait gogora. Errok honela gaztigatu zigun harkadian ibili ondoren: “Oro errana da, aspaldidanik. Oro errana dela ere errana da. Oro errana da, bada, ezinbestean. Oro errana da, baina ez nik”.

*Hastapena* poeman honela dio Jon Benitok: “Atzoak egungoaren ur azalera tenkatzan nau erantzunik gabeko amuekin. Ez naiz lehena, nire aurretikoa da dena, baina historia hau nirekin hasten da”. Berpiztu da idazlea.

Hitzen erroetara joan naiz Benitoren Aran-Berrietan ibili ahala. Bere bidean ibili naiz. Batzuetan gogaide, bestetan bidai-de soila. Batzuetan bide bazterreko paisaiek izugarri liluratu naute, besteetan ez hainbeste. Bistan da, bizitzaren paisaia guztiz eta bikain deskribatzea ez dago idazlearen esku. Ez eta irakurlearen esku eta begietan, idazlearen begiradaz eta gogoaz jabetzeko ahalmena ere.

Bidez bide, penaz pena, saiatzeak poza merezi dit, baina!

**MIKEL ASURMENDI**

# k u l t u r a g e n d a

## Maiatzak 18 eta 19

- Amaia KZn, 10:30ean, kontzertu pedagogikoak LHko 3. mailako haurrentzat, Donato Goienetxe hirukoaren eskutik.

## Maiatzak 29

- Amaia KZn, 12:00etan, musika eta poesia errezitala. Javier Sistiagak zenbait opera arietako testuak errezitatuko ditu, Esther Barandiaranen piano-jotzailea eta Ian Swedlund biltonxelo jolea lagun dituela.

## Maiatzak 17-29

- Euskadiko Kutzaren aretoan, Makila Elkartearen erakusketa.

## Maiatzak 20

- Amaia KZn, 20:00etan, amateur antzerkia. Nagusilan Elkarteko taldeak *Encuentros, enredos y confusiones* izenburuko lana antzeztuko du.

## Maiatzak 21

- Amaia KZn, 17:00etan, Ara Malikian taldeak *Nire*

*lehenengo lau urtarok* musika ikuskizuna eskainiko du.



## Maiatzak 26

- Amaiako hitzaldi aretoan, 19:30ean, *Cómo viajar por tu cuenta* gaiari buruzko hitzaldia irudiz lagunduta, Eneko Etxebarrieta eta Miyuku Okaberen eskutik.



## Maiatzak 28

- Irun Hiriko Kutxa Literatur Sarien banaketa. Amaia KZn, 20:00etan.

## Maiatzak 17 eta 24

- Amaian, 18:00etan, Irungo ikastetxeetako ikasleen bertso saioa.

## Ikus-entzunezkoa euskaraz

- **Maiatzaren 19an, 19:30ean, Irakeko kurdak, Bazterreko bizitzak** izenburuko ikus-entzunezkoa.



## Felipe Iguñizen erakusketa



- **Ekainaren 19ra arte,** Felipe Iguñiz diziplina anitzeko artista irundarraren erakusketa. Margolanak, argazkiak, marrazkiak eta autoerliebeak. Lanen arteko lotura, 5 kontinenteetan zeharreko bidaiak eta hotsak.

## Liburutegiko jarduerak

- **LITERATUR MINTE-GIA**, maiatzaren 19an, 17:00etan, Carlos de Agustinen eskutik.

- **LIBURU FORUMA**, maiatzaren 23an, 19:00etan. Gaia: Tess Gallagher-en *El puente que cruza la luna*.

- **IPUIN KONTAKETA** helduentzat, maiatzaren 26an, 17:30ean.

- **POESIA TALDEA**, maiatzaren 30an, 17:30ean. Gaia: O. Hahn.

- **IRAKURKETA TALDEA**, maiatzaren 31n, 19:00ean. Gaia: Michael Cunningham-en *Las horas*.



## Plan Nagusiaren erakusketa



### Maiatzak 1- Abuztuak 18

Udalbatzak Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari hasierako onepena eman dio.

Dokumentuaren inguruko erakusketa publikoa datorren abuztuaren 18ra arte zabalik egongo da San Juan Harria plazako 4. zenbakiko udal bulegoetan. Hiritarrek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, baita kontsultak egin edo zalantzak argitu ere.

Ordutegia: Ast-ost. 17:00-20:00. Larunb.: 10:00 - 13:0h

## Santiago-Bide lagunen txangoak

- **Maiatzak 15, igandea**. Tolosa-Beasain etapa (18 km). Topagunea: Tolosako udaletxean 8:00etan.

- **Ekainak 12, igandea**. Beasain-Zegama etapa (17 km). Topagunea: Beasaingo Renferen geltokian 8:30ean.

## Bioterra

### Ekainak 3, 4 eta 5.

Ficoban, BIOTERRA azoka 2011. Produktu ekologikoak, bioerakuntza, energia berriztagarriak eta kontsumo arduratsua. Aurten parte hartuko duten hizlarien artean nabarmentzekoa da Gernot Minke alemaniar irakasle, arkitekto eta aditu ospetsua eraikuntza bioklimatikoetan.



Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte) webgunean.

### Lehiaketak



- **IRUNGO BILGUNE FEMINISTAK** (H)istori(o)ak dituzten emakumeak argazki lehiaketa deitu du. Epea: maiatzaren 20ra arte. Gazte Informazio Bulegoan utzi behar dira, edo [gonekin@gmail.com](mailto:gonekin@gmail.com) helbidera bidali.

### Bekak



- **EUSKO JAURLARITZAREN** nazioartekotzeko 85 beka. Baldintzak: goi-mailako unibertsitate-titulazioa eta ingelesa oso ondo jakitea, besteak beste. Epea: Maiatzak 28

### Hezkuntza




- **NOLA AUKERATU HIZKUNTZA-IKASTARO EGOKIENA ATZERRIAN?** Hainbat aholku [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte) webgunean.

### Lana



- **CSIC-EK LAN POLTSA** eskaintzen du. ikerketa-proiektuetan parte hartzeko edo hitzarmen bidezko aldi baterako kontratazioak.

### Solidarioak



**KRISIALDITIK IRTENGO GARA, BAINA NOLA?** Elkar lagunduz! Gipuzkoa Solidarioa ekimenaren bidez laguntza eskaini eta eska dezakezu.

### Gipuzkoatruke



- **ABIAN DA GIPUZKOATRUKE** Internet bidezko azoka. Zerbitzu honen bidez nahi duzuna erosi, saldu, oparitu eta elkartruka dezakezu.

**Erabili eta bota** ohituraren alternatiba!

### Osasun sexualari buruzko web berria

Espainiako Injuvek osasun sexualari buruzko webgune eta zentro berria abian jarri ditu. Ezagutu nahi?

[www.sexualidadinjuve.es](http://www.sexualidadinjuve.es)



### Maileguak

Gratuondoko masterra eta doktoretza ikasteko mailegu unibertsitarioak. Deitzailea: Hezkuntza Ministerioa Epea: Maiatzak 31



Gipuzkoa TB Txingudik Alarde Tradizionaleko kantinereei egingo zaizkien elkarrizketen grabaketara gonbidatzen zaitu.

**Tokia:** Zabaltza plaza

**Noiz:** Ekainak 10, ostirala, arratsaldean.

Ekainak 11, larunbata, goizean eta arratsaldean.



Haurrentzat animazioa



Opari zozketa



Guztiontzat animazioa

**ZATOZ ETA HAR EZAZU PARTE**



Nuestra tele  
eres tú  
Gure telebista  
zu zara



# PROGRAMAZIOA

## 2011

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
7:00- 7:30	Txingudi Gaur laburpena (Errep.)	Txingudi Gaur (Errepikap.)			
8:30-9:00	Txingudi Gaur laburpena (Errep.)	Txingudiko Gaur (Errepikap.)			
9:00-9:30	El Gran Festini (Errep.)	Gipuzkoaldia (Errep.)	Abierto al público gastronomía (Errep.)	Gipuzkoa viajera (Errep.)	Tu economía (Errep.)
12:00-12:30	Carta y Cata (Errep.)	Tiempo Real	30 minutos (Errep.)	Gipuzkoa Gaur (Errep.)	Gipuzkoa Gaur (Errep.)
12:30-13:30	La hora de Boni (Errep.)	Tiempo Real (Errep.)12-13:30	30 minutos +1 (Errep.) Tu Economía	La hora de Boni (Errep.)	Grada Cero 12:30-14:00 (Errep.)
20:30-21:00	Ven de viaje 54	Abierto al público gastronomía	Politika Irun	Politika Hondarribia	Abierto al público gastronomía
21:00-21:30	Txingudi Gaur				Asteko berrien laburpena
21:30-23:00	La Banatua (Real Union)	Euskadi Prime Time			Zinea
23:00	El Gran Festini (Errep.)	30 minutos	Hablando claro	Kirolan	Micrófono abierto
23:30	Carta y Cata (Errep.)	30 minutos+1		Micrófono abierto	Hablando claro
00:00	Txingudi Gaur (Errep.)		Politika Irun	Politika Hondarribia	
00:30	La Banatua (Real Union)	Euskadi Prime Time			Zinea

	Larunbata	Igandea
11:30-13:00	La Banatua	Tu economía Hablando claro
15:00-15:30	Kirolan	Micrófono abierto
15:30-16:00	Micrófono abierto	Kirolan
20:00	Hablando claro	Kirolan Micrófono abierto
21:00-30	Politika Irun	Politika Hondarribia



## BIZIKLETAK FABRIKAKO PREZIOAN

## BICICLETAS A PRECIO DE FÁBRICA



✓ **KARBONOKOETAN ESPEZIALISTAK**  
*Especialistas en carbono*

✓ **MOTA ETA PREZIO GUZTIETAKOAK**  
*Todo tipo de bicicletas*

✓ **MERKATUKO PREZIO/KALITATE OREKARIK ONENA**  
*La mejor relación calidad/precio del mercado*

✓ **KONPONKETAK 24 ORDUTAN**  
*Reparaciones en 24 horas.*

✓ **TXIRRINDULARIARENTZAT OSAGARRIAK**  
*Complementos del ciclista*



**Juan Thalamas, 33 (Fosforera). IRUN 943 332133**

[www.gokacenter.com](http://www.gokacenter.com) [gokacenter@gmail.com](mailto:gokacenter@gmail.com)





**Biltegi eta bulegoak:**  
Txirrri Maleo 4 - 20100 Errenteria

**Dendak:**  
San Francisco, 15 - 20002 Donostia  
San Francisco, 24 - 20002 Donostia  
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia  
Isabel II, 15 - 20011 Donostia  
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria  
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Baosain  
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara  
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

**Erka Osagai Elektrikoak S.L.**  
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea  
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48  
20304 Irun



**- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoak biltegia.**  
**- Lanpara erakusketa.**